

Prensa oharra

Nota de prensa



2023ko aurrekontua onartu da

Udal gobernuak hainbat akordio lortu ditu aurrekontua osatzeko berdintasun, kultura, segurtasun eta ingurumen arlotan

Donostiako Udalak 2023ko aurrekontua onartu du gaurko ezohiko udalbatzarrean, eta 461,9 milioi euroko aurrekontua kudeatuko du, hau da, iazkoa baino %8,73 handiagoa.

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok azpimarratu du 2023ko aurrekontua, beste behin bere, diseinatuta dagoela behar gehien dutenei udal administrazioaren aldetik erantzun egokiena eta baliabide gehiago jasotzeko. Eta horren adibide da, Gizarte Ekintza departamentuaren aurrekontu-sailek izan duten igoera.

Hortaz, adierazi du, bi urtez jarraian osasun-larrialdiak baldintzatutako aurrekontuak izan ondoren, Udala 2019ko aurrekontua gainditzen duten zifretara itzuli dela. Ildo beretik, Orbegozok, honakoa nabarmendu du: “Gaur onartu dugun aurrekontua sendoa, zorrotza, ondo landutakoa eta Donostiak aurrera egiten jarraitzeko hirak dituen beharrei erantzuten duen aurrekontua da”.

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok esan du, gizarte-gastuarekin batera udal gobernuaren lehentasuna izan dela Udalak donostiarrei eskaintzen dizkien kalitatezko zerbitzuak hobetzeko aurrekontu-sailak handitzea. Beraz, Hiri-Mantentze eta Zerbitzuetako departamentuko aurrekontu-sailak %15 handitu dira, hiri zaindua eta garbia izaten jarraitzeko.

Gainera, Orbegozok, segidakoa azpimarratu du: “Ingurumen jasangarriaren alde egiten dugun apustua berresten dugu, eta 23 milioi euro bideratu ditugu ingurumena zaintzeko ekimenetara; besteak beste, garraio publikoa elektrifikatzen jarraitzeko, hainbat hiri-eremu berroneratzeko, edota transizio berdea eta jasangarriarekin zein transizio energetikoarekin lotura duten ekimenak sustatzeko”. Horietako asko Next Generation Funtsen ekarpena izango dute, udal-departamentu ezberdinek egin duten lan eskergari esker.

Era berean, Ogasun zinegotziak esan du, Udal gobernuak inbertsioari garrantzi handia eman dio, eta 59,6 milioi euro bideratu ditu auzo ezberdinetan hainbat jarduketara garatzeko, eta horien artean hiritarrek proposatutako eta bozkatutako hainbat proiektu daude.

Horrenbestez, honakoa gaineratu du: “Aurreikusitako aurrekontu-sailen garapenak eta martxan dauden proiektuek erakusten dute Donostia orainari begiratzen diola eta, era berean, etorkizuna diseinatzen jarraitzen duela inbertesio berriak sustatuz, hain zuzen ere, auzo ezberdinak hobetzen eta berritzen lagunduko duten inbertsioak”.

Prensa oharra

Nota de prensa



Horiek horrela, Loiolako Kuartelen salerosketa aipatu du, eta segidakoa esan du: “Salerosketa honek berresten du eremu berriak artifizializatu gabe etxebizitza berriak garatzeko egiten dugun apustua, eta etxebizitza dela aurrekontu honen atal nagusienetako bat”. Beraz, gogorarazi du, aurrekontuak ia 40 milioi euro bideratuko dituela hirian hainbat eremu garatzen jarraitzeko, eta Donostiako Etxegintzaren aurrekontua %17 handitu dela.

Halaber, aditzera eman du, dagoeneko Partaidetzazko Aurrekontuen prozesu berria abiatu dela, eta helburua izango dela 2024 eta 2025.ekitaldietako aurrekontuak osatzea donostiarrek egingo eta bozkatuko dituzten proposamenekin.

Azkenik, Kerman Orbegozok adierazi du, Udalak kontu orekatuak dituela, eta horrei esker etorkizuna baikortasunez begiratu dezakeela, eta honakoa gaineratu du: “Hiri dinamiko baten alde egiten dugu, inbertsioak egiten dituen, talentua erakartzeko erakargarria dena, eta hiritarrak zaintzen dituen. Finean, donostiarrok harro egongo garen hiria, eta gustura biziko garen hiria. Sinesten dugun hiria da, eta horren alde ari gara lanean. Eta aurrekontu honek hori guztia lortzeko bideratuta dago”.

Akordioak

Aurrekontuaren tramitazioa udal gobernuaren eta oposizioko taldeen arteko hainbat akordiorekin amaitu da. Berdintasuna, kultura, segurtasuna eta ingurumenarekin lotura duten akordioak.

Hortaz, **udal gobernuak eta Elkarrekin Donostiak** adostu dute 50.000 euroko aurrekontu-saila sartzea erdialdean Emakumeen Etxearentzako kokapen berria bilatzeko azterketa egiteko. Gainera, berdintasun arloan ere, beste bi aurrekontu-sail sartzeko akordioa lortu dute: lehena, 10.025 eurotako sexuen eta dibertsitatearen hezkuntzari buruzko programa bat garatzeko ikastetxetako zein institutuetako gazteei zuzenduta; eta bigarrena, 10.025 eurotako, guraso bakarreko familiak zaintza kontziliazioa egin ahal izateko programarako.

Era berean, udal gobernuak eta Elkarrekin Donostiak adostu dute 20.000 euro bideratzea Kontadores-en kultura-zerbitzua jartzeko beharren azterketa bat egiteko, baita hiriko etorkizuneko kultur etxeek nolakoak izan beharko luketen eta zein zerbitzu eskaini beharko luketen aztertze ere.

Halaber, energia eraginkortasunarekin lotura duten segidako bi zuzenketa adostu dituzte: lehena, 99.900 eurotako laguntzak bideratzea komunitate energetikoak sortzeko; eta bigarrena, 60.000 euro bideratzea hiriaren argiteriaren energia eraginkortasuna hobetzeko.

Prensa oharra

Nota de prensa



Bestalde, **udal gobernuak eta PP taldeak** akordioa lortu dute aurrekontuan 500.000 euro Udaltzaingoa indartzera bideratzeko.

Azkenik, **udal gobernuak EH Bilduk** aurkeztutako eduki ekonomikorik gabeko bost zuzenketen alde bozkatu du, eta zehatzago segidakoak babesteko: udalbatza euskalduntzeko plana egiteko; hizkuntza arauen eta irizpideen jarraipena egiteko; Kulturen euskara indizea handitzeko; hizkuntza paisaia euskaraz egiteko; eta Zinemaldia euskalduntzeko.

Donostian, 2023ko martxoaren 13an